

*ikaspenak jasotzeko eskuliburua:
elkarrengandik ikasten*

EGIAZKO AUZOA

*guía de replicabilidad:
aprendamos las unas de las otras*



emaús





Aurkibidea Índice

EUS

1. Sarrera, gida hau zertarako?

- 1.1 Kaixo!
- 1.2 Aurrekariak

2. Definitu ditzagun ideia batzuk.

- 2.1 Multikulturalismoa
- 2.2 Akulturazioa
- 2.3 Akulturazio ereduak:
 - 2.3.1 Gizarte Bazterkeria
 - 2.3.2 Segregazioa
 - 2.3.3 Asimilazio Kulturala
 - 2.3.4 Interkulturalitatea edo Kulturartekotasuna
 - 2.3.5 Integrazioa
 - 2.3.6 Euskal gizarteko akulturazio eredua
- 2.4 Komunitatea
- 2.5 Jasangarritasuna
- 2.6 Aisialdia
- 2.7 Kontsumoa
- 2.8 Partaidetza
- 2.9 Interseksionalitatea

3. Egiatzko Auzoa Prozesua

- 3.1 Ibilbidea: Urtean egindakoa
 - 3.1.1 Erronken identifikazioa
 - 3.1.2 Ikaste-irakaste prozesua
 - 3.1.2.1 Aisialdia kontsumotik haratago?
 - 3.1.2.2 Nola txertatu dezakegu ingurumena gure aisialdi proiektuetan?
 - 3.1.2.3 Aurreiritziak apurtzen feminismo dekolonialatik
 - 3.1.3 Partaidetza prozesua
- 3.2 Ikaspenak Hegoaldetik
- 3.3 Ondorioak

4. Partaideak

CAS

1. Introducción, ¿para qué esta guía?

- 1.1 Hola
- 1.2 Antecedentes

2. Definamos algunos conceptos

- 2.1 Multiculturalismo
- 2.2 Aculturación
- 2.3 Modelos de aculturación:
 - 2.3.1 Exclusión Social
 - 2.3.2 Segregación
 - 2.3.3 Asimilación Cultural
 - 2.3.4 Interculturalidad
 - 2.3.5 Integración
 - 2.3.6 Modelo de aculturación en la sociedad vasca
- 2.4 Comunidad
- 2.5 Sostenibilidad
- 2.6 Ocio
- 2.7 Consumo
- 2.8 Participación
- 2.9 Interseccionalidad

3. Proceso Egiatzko Auzoa

- 3.1 Recorrido realizado durante el año
 - 3.1.1 Identificación de retos
 - 3.1.2 Proceso de enseñanza-aprendizaje
 - 3.1.2.1 ¿Ocio más allá del consumo?
 - 3.1.2.2 ¿Cómo podemos integrar el medio ambiente en nuestros proyectos de ocio?
 - 3.1.2.3 Rompiendo prejuicios desde el feminismo decolonial
 - 3.1.3 Proceso participativo
- 3.2 Aprendizajes desde el Sur
- 3.3 Conclusiones

4. Participantes

1.1

Kaixo!
¡Hola!

Gida hau, zertarako?

Esta guía, ¿Para qué?

1.1

Kaixo!
¡Hola!



EUS

Ongi etorri Egiazko Auzora!

Honela du izena 2021 bukaeran eta 2022 urtean zehar Emaús Gizarte Fundazioak eta SOS Arrazakeria Gipuzkoak elkarrekin burututako proiektua, zehazki:

Egiazko Auzoa:
kontsumo arduratsutik
komunitate inklusiboak sendotzen

Proiektua [Hau Egia Da](#) sareak egindako lanatik abiatzen da, eta Aisialdia eta Kontsumo Arduratsua ardatz dituen prozesu parte-hartzaile bat burutu du Donostiako Egia auzoan.

CAS

¡Bienvenidos a Egiazko Auzoa!

Así se llama el proyecto realizado conjuntamente entre Emaús Fundación Social y SOS Racismo Gipuzkoa entre finales de 2021 y 2022. Concretamente:

Egiazko Auzoa:
fortaleciendo las comunidades inclusivas
desde el consumo responsable

El proyecto parte del trabajo realizado por la red [Hau Egia Da](#) y ha culminado un proceso participativo centrado en el Ocio y el Consumo Responsable en el barrio donostiarra de Egia.

1.1

Kaixo!

¡Hola!

Gida hau, zertarako?

Egian bizi diren bizilagunen arteko harremana sustatzea du helburu, komunitate inklusiboagoak sortzeko. Izan ere, [auzoan egindako diagnostikoak](#) behar honen berri eman zuen, bertakoen eta jatorria atzerrian duten pertsonen arteko topaguneak behar direla.

Honela, aisialdia kulturen arteko elkargunea izan daitekelakoan gaude, baita gizartea eraldatzeko tresna ere. Era berean, Larriadi Klimatikoaren testuingurua kontutan harturik, aisialdia modu eraldatzaile batean birplanteatu daiteke kontsumo alternatibak sustatzeko, aisialdi eredu hegemonikoak desparekotasunak areagotzen baititu.

Orduan, gida hau zertarako da?

Alde batetik, urte honetan zehar ikasi dugun guztia dokumentu batean bildu nahi dugu, prozesu guzti honetan zehar parte hartu dutenekin barneratutako ikaspenak partekatzeko.

Bestetik, honelako prozesu bat martxan jarri nahi duenarentzako gure esperientzatik ikasi daitekeena biltzen du dokumentuak, tokian tokiko ezaugarriak kontuan harturik, noski. Honela, honelako prozesuen erreplikagarritasuna bultzatu nahi dugu.

Su objetivo es fomentar la relación entre las personas que viven en Egia para crear comunidades más inclusivas. De hecho, el [diagnóstico](#) realizado en el barrio ya manifestaba la necesidad de buscar espacios de encuentro entre personas de origen autóctono y personas de origen extranjero.

Así, creemos que el ocio puede ser un punto de encuentro entre culturas y una herramienta de transformación social. Al mismo tiempo, teniendo en cuenta el contexto de emergencia climática en que nos encontramos y que el modelo de ocio hegemónico aumenta las desigualdades, el ocio puede replantearse como una forma transformadora para promover alternativas de consumo.

Entonces, ¿para qué es esta guía?

Por un lado, queremos recoger en un documento todo lo que hemos aprendido a lo largo de este año, para compartir los aprendizajes interiorizados con las personas participantes durante el proceso.

Por otro lado, el documento recoge lo que se puede aprender de nuestra experiencia para quien quiera poner en marcha un proceso similar, aunque siempre haya que tener en cuenta las características locales. De este modo, queremos impulsar la replicabilidad de este tipo de procesos.

Esta guía, ¿Para qué?

1.2

Aurrekariak Antecedentes

Nondik abiatu gara?



¿Cuál es el punto de partida?

1.2

Aurrekariak Antecedentes

EUS

Egiazko Auzoa proiektuak 2019an sortu zen Hau Egia Da (hemendik aurrera, HED) sarearen prozesuari jarraipena eman nahi dio. HED Donostiako Egia auzoan kokatzen da, bi ardatz nagusi dituela: aniztasun kulturala eta esku-hartze komunitarioa.

Auzoak bizi duen errealitate sozial eta kultural anitza balioan jartzen du auzoan kulturarteko ekimenak aktibatuz, prozesu migratorioekin batera auzoan egoera berriak ematen baitira.

Bertan parte hartzen dute:

Emaus Gizarte Fundazioa
Dar-dar gizarte ekimenezko kooperatiba
Gipuzkoako SOS Arrazakeria
Bagera Donostiako Euskaltzaleen Elkartea
Ongi Etorri eskolara ekimena
Donostiako Udala (Aniztasun eta partaidetza sailak)
Egia Bizirik auzo elkarte
Tabakalerako hezkuntza arloa

CAS

El proyecto Egiazko Auzoa pretende dar continuidad al proceso de la red Hau Egia Da (en adelante, HED) que nació en 2019. La red HED se sitúa en el barrio donostiarra de Egiá, y gira en torno a dos ejes fundamentales: la diversidad cultural y la intervención comunitaria.

La red trata de poner en valor la realidad social y cultural plural que vive el barrio activando iniciativas interculturales, ya que los procesos migratorios implican nuevas situaciones en el barrio.

En ella participan:

Emaús Fundación Social
Cooperativa de iniciativa social Dar-dar
SOS Racismo Gipuzkoa
Asociación en favor del euskara de Donostia Bagera
Iniciativa Ongi Etorri Eskolara
Ayuntamiento de Donostia
(departamentos de diversidad y participación)
Asociación vecinal Egiá Bizirik
Área de educación de Tabakalera.

1.2

Aurrekariak Antecedentes

HEDk 2020ean auzoko elkarbizitza eta auzo-bidelaguntza diagnostiko bat argitaratu zuen, non etorkizunerako esku hartzeko ildoak eta proposamenak zehaztu ziren:

1. Egiako kultura-aniztasunaren inguruko ekintza-estrategia kolektiboak diseinatzea
2. Gizarte politika komunitarioak:
Sentsibilizazioa, etxebizitza, lana, auzo-zaintza, sare solidarioak sendotzea
3. Hezkuntza politika komunitarioak: eskolatik auzora
4. Gizarteratzeko erkidegoko estrategiak
5. Auzoan kulturen arteko bizikidetzak sustatzea: topaguneak
6. Bizilagun berrien artean euskara sustatzea

Hemendik abiatuta, EGIAZKO AUZOA proiektuak Egian prozesu parte-hartzaile bat sustatu nahi du.

Zertarako?

- Auzoan bizi diren pertsonen artean (migrante zein autoktono) harremanak sustatzeko
- Komunitate inklusiboak eraikitzeko

Nola?

Aisialdian zentratuta, hau kontsumo arduratsuaren ikuspegitik ulertuta

En 2020 HED publicó un diagnóstico de convivencia y acompañamiento vecinal en el que se definían las líneas de intervención y propuestas de cara al futuro:

1. *Diseño de estrategias colectivas de acción en torno a la diversidad cultural en egia*
2. *Políticas sociales comunitarias:
Sensibilización, vivienda, trabajo, cuidado vecinal, fortalecimiento de redes solidarias*
3. *Políticas educativas comunitarias: de la escuela al barrio*
4. *Estrategias de inclusión comunitaria*
5. *Fomento de la convivencia intercultural en el barrio: espacios de encuentro*
6. *Fomento del euskera entre los nuevos vecinos y vecinas*

Partiendo de esta base, el proyecto EGIAZKO AUZOA pretende promover un proceso participativo en Egia.

¿Para qué?

- *Fomentar las relaciones entre las personas que viven en el barrio (tanto migrantes como autóctonas)*
- *Para construir comunidades más inclusivas*

¿Cómo?

Centrándonos en el ocio, entendido desde el punto de vista del consumo responsable.




HAU EGIA DA! SAREA - IRAILA 2020

Hau Egia Da:

EUS / [Diagnostikoa: Elkarbizitza eta auzo-bidelaguntza](#)

CAS / [Diagnóstico: Convivencia y acompañamiento](#)



2.1

Multikulturalismoa

Multiculturalidad



Gizapedia
<https://gizapedia.org>



2.1

Multikulturalismoa

Multiculturalidad

EUS

Multikulturalismoa, multikulturalitatea edo kultura aniztasuna (kultur aniztasuna ere deitua) gertatzen da kultura anitzek espazio geografiko eta sozial berdina partekatzen dutenean, haietako bakoitzak bere kultura, ohitura eta balio propioak atxikiz, besteekiko harreman, elkartruke edo akulturaziorik gabe, eta aldi berean bizikidetzan eta berdintasunean, haien artean menpekotasunik sortu gabe (hala ez balitz, segregazio, asimilazioa edo eskusioa sortuko lirateke). Labur esanda, pluraltasun kulturala baino ez da. Hori horrela, multikulturalitateak besterik gabe elkarrekin egoteari baino ez dio erreferentzia egiten, kulturen arteko harremanak jasotzen dituen interkulturalitateak ez bezala.

Halaber, eta haxe izaten da adiera ohikoena, multikulturalismoa kultura haien bizikidetzarako printzipio eta politika zenbait barnehartzen dituen termino generikoa izaten da, kulturaz desberdinak diren gutxiengo eta beste gizataldeen presentzia, aukerak eta tratamendu berdina eta orekatuak aldeztzen dituen, diskriminaziorik gabe, bereziki eremu instituzionalean, eta ordena soziala atxikitze aldera, tolerantzia sustatzen duena, baina orokorrean bakoitza bere kultura

CAS

El multiculturalismo, multiculturalidad o diversidad cultural se produce cuando diversas culturas comparten un mismo espacio geográfico y social, cada una de ellas conservando sus propias costumbres y valores, sin relación, intercambio o aculturación con las demás. Y, al mismo tiempo, en convivencia e igualdad, sin crear subordinación entre ellas (de no ser así, surgirían segregación, asimilación o exclusión). En suma, no es más que pluralidad cultural. Así, la multiculturalidad sólo hace referencia a la coexistencia, a diferencia de la interculturalidad que recoge las relaciones interculturales.

Asimismo, y como acepción más común, el multiculturalismo es un término genérico que incluye una serie de principios y políticas de convivencia de las culturas, defendiendo la presencia, las oportunidades y los tratamientos iguales y equilibrados de las minorías y otros colectivos culturales diferentes, sin discriminaciones, especialmente en el ámbito institucional, y fomentando la tolerancia para mantener el orden social, pero manteniendo en general una cultura propia. A veces se distingue entre multiculturalidad, situación de multiculturalidad,

Definitu ditzagun ideia batzuk

Definamos algunas ideas

propioa atxikiz. Batzuetan, multikulturalitatea, kultura aniztasunaren egoera, eta multikulturalismoa, kultura anitzen bizikidetzaren sustapena, bereizten dira. Interkulturalismoa, berriz, haratago doa eta kulturen arteko asimilazioa eta integrazioa sustatzen ditu.

XX. mendeko azken hamarkadetatik puri-purian dabilen gaia da, bereziki Mendebaldeko herrialdeetara etorritako migrazioei eman beharreko erantzunaren inguruko eztabaidan. Globalizazioarekin loturiko fenomenoak izan arren, harekin desberdintasun nabariak ditu: globalizazioak uniformizazioa ekarri eta berdintzen duen bitartean, multikulturalismoak ezberdintasun kulturalak aitortu eta sostengatzen ditu (Berkes L., 2010),

y multiculturalismo, fomento de la convivencia multicultural. El interculturalismo, por su parte, va más allá y promueve la asimilación e integración intercultural.

Se trata de un tema de actualidad desde las últimas décadas del siglo XX, especialmente en el debate sobre la respuesta a las migraciones a los países occidentales. A pesar de tratarse de un fenómeno ligado a la globalización, presenta notables diferencias con ella: mientras la globalización supone e iguala la uniformización, el multiculturalismo reconoce y sustenta las diferencias culturales (Berkes L., 2010).



Gizapedia
<https://gizapedia.org>

Definitu ditzagun ideia batzuk

Definamos algunas ideas

2.2

Akulturazioa Aculturación

EUS

Akulturazioa, kultura ezberdinetako gizataldeak harremanetan izatearen edo elkar ukitzearen ondorioz, haietako batek bestearen kultura elementu zenbait bereganatu edo kultura horretara moldatzeko prozesua da. Maila indibidualean ere definitzen da, gizabanakoa beste kulturekin kontaktuan izanda bere jarrera, bere iritzi eta balioetan gertatzen diren aldaketak izendatzeko.

Etimologiaz, ad- latinezko aurrizkiarekin osaturik dago, eta horrela kultura batetik besterako mugimendua, norabide bakarreko prozesua alegia, adieraziko luke zehazkiago, eta ez bi kulturen arteko elkarrekintza. Norabide bakarreko adiera horretan, tokiko kulturek eta kultura indigenek Mendebaldeko kultura bereganatzeko egiten duten mugimendua izendatzeko erabili da, haien dekulturazio edo kultura galtzearen ondorioz. Beste batzuetan ordea, kanpotik etorritako gizabanako eta gizataldeak tokiko kultura bereganatu edo kultura berria osatzeko prozesua izendatzeko erabili izan da.

Akulturazioaren ondorioz gizatalde baten erabateko asimilazio kulturala gertatzen da batzuetan, kanpoko gizataldea guztiz integratzen denean hain zuzen, kultura nagusiko balio kulturalak onartutakoan (Teske R, Nelson B., 1974).

CAS

La aculturación es el proceso por el cual, por contacto entre colectivos de diferentes culturas, uno de ellos adquiere o se adapta a ciertos elementos culturales de la otra. También se define a nivel individual para designar los cambios que se producen en sus actitudes, opiniones y valores a través del contacto del individuo con otras culturas.

La etimología está formada por el prefijo ad- latino, de manera que expresaría más exactamente el movimiento de una cultura a otra, es decir, el proceso unidireccional, y no la interacción entre dos culturas. En esta acepción unidireccional se ha utilizado para designar el movimiento de las culturas locales e indígenas hacia la adquisición de la cultura occidental como consecuencia de su deculturación o pérdida de la cultura. En otras ocasiones, sin embargo, los individuos y las colectividades procedentes del exterior se han utilizado para asimilar la cultura local o para designar el proceso de formación de la nueva cultura.

La aculturación se traduce en ocasiones en la plena asimilación cultural de un colectivo, cuando el colectivo exterior se integra plenamente, una vez asumidos los valores culturales de la cultura dominante (Teske R, Nelson B., 1974).

2.3 Akulturazio ereduak

Modelos de aculturación

Definitu
ditzagun
ideia batzuk

Definamos
algunas
ideas




2.3.1
Gizarte bazterkeria
Exclusión Social


2.3.2
Segregazioa
Segregación



2.1
Multikulturalismoa
Multiculturalidad



2.3.3
Asimilazio kulturala
Asimilación cultural



2.3.4
Interkulturalitatea edo kulturartekotasuna
Interculturalidad

2.3.1

Gizarte bazterkeria Exclusión Social



Gizapedia
<https://gizapedia.org>



2.3.1

Gizarte bazterkeria Exclusión social

EUS

Gizarte bazterketa edo eskusio soziala pertsona edo gizatalde bat gizartearen modu duinean bizitzeko aukerarik gabe uztea da, arlo ekonomikoan nahiz sozialean bazter utziz edo zokoratuz. Bi dimentsio horiek, ekonomikoa nahiz soziala, elkar loturik daude guztiz, batera doaz beti, eta eskusioa batetik zein bestetik etor daiteke: pobre edo txiroa izateak bazterketa soziala dakar gehien-gehienetan, eta diskriminazio sozialak, printzipioz pertsonak edo familiak arazo ekonomikorik ez badu ere, azkenean pobrezia ekarri eta eskusiora eramango du, lan-merkaturako sarrera eragotziz. Askotan, pobrezia eta diskriminazioa hain loturik daude, non zaila egiten zaigun ikustea zein den eskusioa eragin duen lehen faktorea; hain zuzen ere, pobreak eta diskriminazioak, diskriminazioak eta pobreak, sorgin gupil edo gupil zoroa eragiten dute biek ala biek. Finean, beraz, desberdintasun sozialak dira eskusioa eragiten dutenak. Edonola ere, identifika ditzakegu eskusioa eragiten duten faktore asko eta asko: faktore ekonomikoak, pobrezia eta langabezia, bereziki iraupen luzekoa, eta langabezia eragin dezaketen faktoreak, esaterako trebakuntza-falta; eta faktore sozialak, hala nola adikzioak, buruko arazoak, gaixotasunak, isolamendua eta diskriminazioak (matxismoa, xenofobia, ...).

CAS

La exclusión social supone dejar a una persona o grupo de personas sin la posibilidad de vivir dignamente en sociedad, excluyéndolas o apartándolas en el plano económico y social. Ambas dimensiones, tanto la económica como la social, van siempre unidas, y la exclusión puede venir de un lado a otro: ser pobre supone en la mayoría de los casos una exclusión social, y la discriminación social, aunque en principio la persona o la familia no tenga problemas económicos, acabará conduciendo a la pobreza y a la exclusión, impidiendo el acceso al mercado laboral. En muchas ocasiones la pobreza y la discriminación están tan unidas que nos cuesta ver cuál es el primer factor que ha provocado la exclusión, ya que la pobreza y la discriminación provocan una rueda o círculo vicioso. En definitiva, son las desigualdades sociales las que provocan la exclusión. En cualquier caso, podemos identificar muchos factores que provocan exclusión: factores económicos, pobreza y desempleo, especialmente el de larga duración; factores que pueden dar lugar al desempleo, como la falta de formación; factores sociales como las adicciones, problemas mentales, enfermedades, aislamiento y discriminaciones (machismo, xenofobia,...).

Definitu ditzagun ideia batzuk

Definamos algunas ideas

Esklusio soziala kulturalki ere uler daiteke, gutxiengoan dauden kultura bat kultura nagusi baten mendea geratu denean, gutxiengoan dauden taldea bere kultura galduz baina aldi berean kultura kolektiboan integratu gabe. Interkulturalitatearen egoera muturreko eta okerreña da, besteak integrazioa, asimilazioa eta segregazioa izanik.

Gizarte bazterketa arazo indibiduala da, noski, baina denoi eragiten digun arazoa ere bada: esklusioa bultzatu edo besterik gabe toleratu egiten duen gizarte bat arazoak izango ditu ekonomikoki garatzeko, gizarte integratua eratzea eragozten du eta politikoki arriskutsua da, biolentzia eragin baitezake. Denoi eragiten digun arazoa izatearekin batera, esklusioa sistema sozioekonomiko eta ideologia baten ondorioa ere bada: kapitalismoak, bereziki bere bertsio global eta neoliberean, desberdintasun sozialak areagotu egiten ditu, eta ideologia baztertzailerik bat txertatu gizaratean.

La exclusión social puede entenderse también culturalmente cuando una cultura minoritaria ha quedado sometida a una cultura dominante, perdiendo el grupo minoritario su cultura pero sin integrarse a su vez en la cultura colectiva. La situación de la interculturalidad es la más extrema y la peor, siendo la otra la de integración, asimilación y segregación.

La exclusión social es un problema individual, por supuesto, pero también es un problema colectivo: una sociedad que promueve la exclusión o la tolera va a tener problemas para desarrollarse económicamente, impide la constitución de una sociedad integrada y es políticamente peligrosa, porque puede provocar violencia. Además de ser un problema que nos afecta a todas las personas, la exclusión es también consecuencia de un sistema socioeconómico e ideología: el capitalismo, especialmente en su versión global y neoliberal, acentúa las desigualdades sociales e incorpora a la sociedad una ideología excluyente.

2.3.2

Segregazioa Segregación



Gizapedia
<https://gizapedia.org>

Definitu ditzagun ideia batzuk

Definamos algunas ideas

2.3.2

Segregazioa Segregación

EUS

Segregazioa, zehazkiago segregazio soziala, gizatalde batzuk hiri, eskualde edo nazio bateko gune ezberdinetan bizi direnean gertatzen da; hiri bateko auzo pobreak eta auzo aberatsak, adibidez. Kulturalki, gutxiengoa duen kultura batek kultura nagusi bat bereganatzen ez duenean gertatzen da, bere elementu kultural propioak atxikiz, eta orduan segregazio kulturala deitzen zaio; orduan, interkulturalitatearen aldaera bat da, integrazioarekin, asimilazioarekin eta esklusioarekin batera. Hala ere, adiera geografikoa izaten du gehienetan, segregatzen dituen taldeak aparte bizitzeko joera izaten baita, ghetto direlakoetan, segregazioaren ondorio garbi eta azalekoenetakoa.

Segregazioa diskriminazioaren eta gizarte bazterketaren ondorioa izaten da eta horren kausa ere bai: segregazioak gizarte bazterketa areagotu egiten du, eta aldi berean gizarte bazterketak berak segregazioa bultzatzen du, integrazio eta asimilazio prozesuak eragotziz. Ildo horretatik orde, eztabaida izaten da adibidez pobreziak eragindako segregazioak bertako gizataldeak integratzeko borondate ezaren ondorioa den, pobreziaren, delinkuentziaren eta giza laguntzaren kulturaren jarraitu nahi dutelako (Chicagoko eskola soziologikotik baieztatu izan den bazala), edota politika instituzionalen ondorio zuzena den.

CAS

La segregación, más concretamente la segregación social, se produce cuando algunas colectividades viven en diferentes zonas de una ciudad, región o nación; los barrios pobres de una ciudad y los barrios ricos, por ejemplo. Culturalmente se da cuando una cultura minoritaria no asume la cultura dominante, manteniendo sus propios elementos culturales. Entonces se llama segregación cultural. Es una variante de la interculturalidad, junto con la integración, la asimilación y la exclusión. Sin embargo, generalmente tiene un sentido geográfico, ya que los grupos segregados tienden a vivir aparte. Los guetos son uno de los efectos más claros y superficiales de la segregación.

La segregación es causa y consecuencia de discriminación y exclusión social: la segregación aumenta la exclusión social, al tiempo que la exclusión social favorece la segregación, impidiendo los procesos de integración y asimilación. En este sentido, se discute, por ejemplo, si la segregación por la pobreza es consecuencia de la falta de voluntad de los colectivos autóctonos por la integración, porque las personas segregadas prefieren seguir en la cultura de la pobreza, la delincuencia y la ayuda humana (como se ha confirmado desde la escuela sociológica de Chicago), o si es consecuencia directa de las políticas institucionales.

Definitu ditzagun ideia batzuk

Definamos algunas ideas

Hala ere, aipatu behar da segregazioa ez dela soilik beheko klaseetan gauzatzen; adibidez, XX. mendearen bukaeratik komunitate hesituen fenomenoak klase aberatsak ere segregaturik bizi daitezkeela erakusten du argi eta garbi.

Antzinako gizarteetan ohikoagoa bazen ere (adibidez, juduak auzo batzuetan, ghetto direlakoetan, guztiz baztertuak bizi zirenean), egungo gizarteetan segregazioa ez da erabatekoa izaten. Adibidez, erlijioa segregaziorako faktorea izaten bada ere, erlijio bateko sinestunak elkarrekin bizitzea nahiago izaten duten arren, egun ez da faktore sendoa izaten bizitokia erabakitzeko; beste muturrean, jazarpen politiko, etniko eta erlijiosoak segregazioa eragiten du maiz, hala nola ijito taldeei Europako hiri batzuetan toki jakin batzuetan bizitzera behartu zaienean kasu. Segregazio-maila neurtzeko, alegia gizataldeak segregaturik edo banandurik zenbateraino bizi diren jasotzen duten adierazle zenbait bizi dira, gune zenbaitetan bizi diren gizatalde ezberdinetako portzentajeak alderatuz.

Sin embargo, hay que señalar que la segregación no se produce sólo en las clases más bajas, por ejemplo, desde finales del siglo XX el fenómeno de las comunidades cercadas muestra claramente que las clases ricas también pueden vivir segregadas.

Aunque era más común en las sociedades antiguas (por ejemplo, los judíos en algunos barrios, en los llamados guetos, cuando vivían completamente marginados), en las sociedades actuales la segregación no suele ser completa. Por ejemplo, aunque la religión suele ser un factor de segregación, aunque los creyentes de una religión prefieren vivir juntos, hoy en día no es un factor sólido para decidir el lugar de residencia; en el otro extremo, la persecución política, étnica y religiosa provoca frecuentemente segregación, como cuando se ha obligado a grupos gitanos a residir en determinadas ciudades europeas. El grado de segregación se mide por una serie de indicadores que recogen el grado de vida segregada o separada de las colectividades, comparando los porcentajes de los diferentes colectivos que viven en algunas zonas.


2.3.3

Asimilazio kulturala

Asimilación cultural



Gizapedia
<https://gizapedia.org>



2.3.3

Asimilazio kulturala

Asimilación cultural

EUS

Antropologian, asimilazio kulturala edo kultur asimilazioa multikulturalitate egoera batean gutxiengoan dagoen kultura batek, kultura minoritario batek alegia, kultura nagusi bateko elementu gehienak bereganatzen dituen, aldi berean bere jatorrizko elementu kulturalak kultura nagusiaren esku utziz - horien esanahia galtzearekin batera (ikus, apropiazio kulturala) - edo baztertuz. Asimilazio kulturala erabateko akulturazioa dela esan liteke, kultura nagusirako erabateko irekitasuna, eta gizarte multikulturaletan dauden interkulturalitate edo hareman kulturalen aldaeretako bat bat da, integrazioarekin, segregazioarekin eta esklusioarekin batera.

CAS

En antropología, la asimilación cultural en un estado de multiculturalidad implica que una cultura minoritaria adquiera la mayor parte de los elementos de una cultura dominante, dejando a su vez sus elementos culturales nativos en manos de la cultura dominante – con pérdida de significado de los mismos (ver; apropiación cultural) - o desechándolos. Se podría decir que la asimilación cultural es una aculturación total, una apertura total a la cultura dominante, y es una de las variantes de interculturalidad o de receptividad cultural presentes en las sociedades multiculturales, junto con la integración, segregación y exclusión.

2.3.4

Interkulturalitatea edo kulturartekotasuna Interculturalidad



Gizapedia
<https://gizapedia.org>



2.3.4

Interkulturalitatea edo kulturartekotasuna Interculturalidad

EUS

Interkulturalitatea edo kulturartekotasuna espazio geografiko edo sozial bera partekatzen duten kultura desberdinen artean (ikus, multikulturalismoa) sortzen diren elkarrekintza eta harremanen multzoa da, kulturen artean balioak, jokabideak, ohiturak eta ikuskerak trukatu. Interkulturalitate edo interakzio kultural horren emaitza eragiten duen **faktore funtsezkoa** da nolakoa den **kultura horietako nagusi edo menderatzailea**, eta horren arabera interkulturalitatearen lau modu hauek sortuko dira: integrazioa, asimilazioa, segregazioa eta esklusioa.

Multikulturalismoa batera aipatu den kontzeptua da interkulturalitatea, baina biak bereizi behar dira: **multikulturalismoak espazio berean kultura anitz elkarrekin egotea baino ez den bitartean, interkulturalitateak horien arteko harreman positiboak jasotzen ditu.**

CAS

*Interculturalidad es el conjunto de interacciones y relaciones que surgen entre diferentes culturas que comparten un mismo espacio geográfico o social (ver, multiculturalismo), intercambiando valores, comportamientos, hábitos y concepciones entre culturas. **El factor determinante** que produce el resultado de esa interculturalidad o interacción cultural es **cómo es la cultura dominante**, y en función de ello se crearán las cuatro formas de interculturalidad: integración, asimilación, segregación y exclusión.*

*El multiculturalismo es un concepto al que se ha aludido conjuntamente, pero hay que diferenciar ambos: **mientras que el multiculturalismo no es más que la coexistencia de múltiples culturas en un mismo espacio, la interculturalidad recoge las relaciones positivas entre ellas.***

2.3.5

Integrazioa

Integración



Gizapedia
<https://gizapedia.org>

Definitu ditzagun ideia batzuk

Definamos algunas ideas

2.3.5

Integrazioa

Integración

EUS

Soziologian, integrazio soziala edo gizarte integrazioa dagoela esaten da gizatalde, gizarte klase, kolektibo eta gizabanako desberdinek elkarrekin jardun eta gizarte edo talde integratu edo bateratu gisa jokatu eta bizi direnean, elkartasunean. Kulturalki ere uler daiteke kultura desberdinetako taldeak, interkulturalitatezko harreman batean, kulturen arteko transmisioa gertatzen denean, baina aldi berean haietako bakoitzean kultura propioa atxikitzen denean (ikus, interkulturalitatea eta interkulturalismoa), asimilazioa, eskusioa eta segregazioa saihestuz.

CAS

En sociología se entiende por integración social aquella en la que diferentes colectivos, clases sociales e individuos actúan conjuntamente y viven como sociedades o grupos integrados o unificados, en solidaridad. También se puede entender culturalmente a grupos de diferentes culturas cuando, en una relación de interculturalidad, se produce una transmisión intercultural, pero al mismo tiempo se mantiene en cada una de ellas una cultura propia (véase, interculturalidad e interkulturalismo), evitando la asimilación, la exclusión y la segregación.

2.3.6

Euskal gizarteko akulturazio eredua

Modelo de aculturación de la sociedad vasca

ikus
pegi

Ikuspegi
Immigrazioaren Euskal
Behatokia

Eta euskal
gizartean,
zein nolako
akulturazioa
ematen da?

Y en la sociedad
vasca, ¿Qué
modelo se da?

2.3.6

Euskal gizarteko akulturazio eredua

Modelo de aculturación de la sociedad vasca

EUS

Nahiz eta euskal erakundeek, oro har, aniztasuna kudeatzerakoan kulturartekotasunean oinarritutako eredu baten alde egin, euskal gizartean oraindik ez da jarrera hori barneratu. **Gizarteak “dekantazio bidezko bizikidetza-eredu asimilazionistaren” (asimilazionismo leuna) alde egiten jarraitzen du.**

Hau da, onartzen du integrazio-prozesuan ahalegina egitea atzerritarrei zein bertakoei dagokigun erantzukizuna dela, baina, uste du, batez ere, atzerritar jatorriko pertsonen ahalegindu behar dutela gure gizartean nagusi diren ohitura eta tradizioetara ohitzen.

[\(Ikuspegi Barometroa, 2020\)](#)

Esan daiteke 2004tik 2022ra bitartean, oro har, gora egin dutela bizikidetza-eredu “asimilazionista leunaren” (dekantazio bidez, ez inposaketa bidez) aldeko posizioek. Ideia, adibidez, iritzi hauetan islatzen da: “hobe da guztiok ohitura eta usadio berberak izatea” eta “hobe da guztiok harrera-herrialdeko hizkuntzak hitz egitea”. Azken urteotan, gero eta gehiago dira baieztapen horien aldekoak.

[\(Ikuspegi Barometroa, 2022\)](#)

CAS

A pesar de que las instituciones vascas, en general, apuestan por un modelo basado en la interculturalidad para la gestión de la diversidad, en la sociedad vasca todavía no se ha interiorizado esta actitud. **La sociedad sigue apostando por un modelo de convivencia asimilacionista por decantación (asimilacionismo suave).**

Es decir, reconoce que el esfuerzo en el proceso de integración es responsabilidad tanto de las personas extranjeras como de las autóctonas, pero considera que, sobre todo, son las personas de origen extranjero las que deben esforzarse en familiarizarse con las costumbres y tradiciones imperantes en nuestra sociedad”.

[\(Barómetro Ikuspegi, 2020\)](#)

Desde 2004, podemos decir que, a grandes rasgos, las posiciones que están a favor de un modelo **“asimilacionista blando”** (por decantación, no por imposición) de convivencia aumentan.

Esta idea se concreta en cuestiones como: “es mejor que todas las personas compartamos las mismas costumbres y tradiciones” o “es mejor que todas las personas hablemos las lenguas del país de acogida”, afirmaciones que han aumentado en estos últimos años.

[\(Barómetro Ikuspegi, 2022\)](#)



Bizihezi
Emaús Gizarte Fundazioa

Definitu ditzagun ideia batzuk

Definamos algunas ideas

2.4

Komunitatea Comunidad

EUS

Komunitateaz ulertzen dugu, identitate kolektibo bat – emana, kultura moduan eraikia edo intentzioz aukeratua eta eraikia – partekatzen duten eta elkarrekikotasun printzipioak arautzen dituzten taldeak.

Elkarrekikotasuna, komunitatearen oinarritzko printzipio bezala, bai zuk bai beste pertsonak zerbait emateko duzuela eta jasotzeko behar duzuela esan nahi du, norbanakoaren bai komunitatearen ongizaterako, estuki lotuak daudelako.

Komunitate guztiek gizakiaren oinarritzko beharrak asetzea posible egiten du, modu eta maila desberdinean:

- Pertenentzia zentzua
- Onarpena
- Babes eta segurtasuna sentimendua

CAS

Entendemos por comunidad aquellos grupos de personas que comparten una identidad colectiva – dada, construida culturalmente o elegida y construida intencionadamente – y que se rigen por el principio de reciprocidad.

La reciprocidad, como principio básico de la comunidad, supone una aceptación de que tanto tú como la otra persona tenéis algo para dar y también necesitáis recibir; para vuestro bienestar y el de la comunidad, que están íntimamente unidos.

Toda comunidad, en diverso modo y grado, permite satisfacer necesidades fundamentales del ser humano:

- Sentido de pertenencia
- Aceptación
- Sentimiento de protección y seguridad

Definitu ditzagun ideia batzuk

Definamos algunas ideas

KOMUNITATE INKLUSIBO ETA EKITATIBOAK

Komunitate eraldatzaileetan eta bere eraikuntza prozesuetan ekitateaz eta inklusioaz hitz egiten dugunean, honetaz ari gara:

EKITATEA: justizia kontzeptuarekin eta eskubideen (erresistentzian, eraikuntzan, kolektibo moduan) betetzearekin erlazionatua, berdintasunaren sustapenari erantzuten dio bere dimentsio guztietan

INKLUSIOA: zaintzaren etikarekin eta gizarte kohesioko horizonte batekin erlazionatua, gizarte batean partaidetza osoko gaitasunari eta aukerari erantzuten dio.

Batzuetan, desberdina den hori / egin den hori / jatorriz tratatu den hori, modu ezberdinean tratatzea da, berdintasuna lortzeko.

Ez da soilik hainbat talderentzat existitzen den sistemaren barruan onartze edo babes tarteak bilatzea.

Aniztasuna onartzetik eta politizazioetik eta feminismotik egiturak berreraikitzea esan nahi du.

Oro har, gainerako pertsonen beharrekin, desirekin eta zailtasunekin enpatia eta elkartasuna izatea da. Eta bereziki, sistemaren barruan diskriminazio eta opresio gehien jasaten duten pertsona eta herri horiekin, bai komunitate barruan bai beste inguruetan ere.

Antzezleku konplexu batean, pertsona eta kolektibo guztiekin, guztiengatik eta guztientzat zaintzak, ongi-izatea, partaidetza esanguratsua eta solidarioa, eskubideak eta aukera berdintasuna bermatzen dituzten, funtzionamendu eta antolakuntza praktikak bilatzea da modu kolektiboan.

COMUNIDADES INCLUSIVAS Y EQUITATIVAS

Cuando hablamos de equidad e inclusión en comunidades transformadoras y en sus procesos de construcción colectiva nos referimos a:

EQUIDAD: vinculada al concepto de justicia y al ejercicio de los derechos (en resistencia, en construcción, en colectivo), remite al fomento de la igualdad en todas las dimensiones

INCLUSIÓN: vinculada a la ética del cuidado y a un horizonte de cohesión social, remite a la capacidad y oportunidad de participación plena en una sociedad

Supone, a veces, tratar de modo diferenciado lo que es / se ha hecho / es tratado desigual en origen, para alcanzar la igualdad.

No supone solamente buscar, dentro del sistema existente, huecos de aceptación o protección para ciertos grupos.

Supone refundar estructuras desde el reconocimiento y la politización de la diversidad y desde el feminismo.

Supone empatía y solidaridad con las necesidades, anhelos y dificultades de las demás personas en general. Y, especialmente, con aquellas personas y pueblos que mayor discriminación y opresión sufren dentro del sistema, a la interna de la comunidad y en otros entornos.

Supone buscar colectivamente prácticas de funcionamiento y organización que garanticen cuidados, bienestar, participación significativa y solidaria, derechos e igualdad de oportunidades con, por y para todas las personas y colectivos en un escenario complejo.



Oihana Orkolaga
Cristina Enea Fundazioa

2.5

Jasangarritasuna
Sostenibilidad

Definitu
ditzagun
ideia batzuk

Definamos
algunas
ideas

EUS

Gaur egun gure gizartean daramagun bizimoduak, natur baliabideen xahutzean eta erregai fosilen erabileran oinarritua dagoenak, eragin negatiboak ditu ingurumenean. Horren isla dira bizitzen ari garen biodibertsitate galera eta klima aldaketa, esate baterako.

Ingurumenaren ikuspegitik, bere diseinu, antolakuntza eta gauzatzean, ingurumen eragin negatiboak minimizatu eta bertako komunitatearentzat ondare positiboa uzten duen jarduera, produktu edo ekimena izango litzateke jasangarria.

Zentzu horretan, jarduera edo ekitaldi bat aurrera eramateko garaian kontuan izan beharko ditugu gure ekimena antolatzeke erabiliko ditugun baliabideak (ura, energia, baliabide naturalak) eta baita sortuko ditugun ondorioak (zarata, isurketak, hondakinak...), hau da, eragingo dugun aztarna ekologikoa.

Baina, ingurumenaz haratago, gure ekimena jasangarria izateko giza baliabide eta eragin sozialak ere kontuan hartu beharko ditugu.

CAS

La forma de vida que hoy llevamos en nuestra sociedad, basada en el despilfarro de recursos naturales y el uso de combustibles fósiles, tiene efectos negativos sobre el medio ambiente. Reflejo de ello son la pérdida de biodiversidad que estamos viviendo y el cambio climático, por ejemplo.

Desde el punto de vista medioambiental, en su diseño, organización y ejecución, la actividad, producto o iniciativa sostenible sería aquella que minimiza los impactos ambientales negativos y deja un patrimonio positivo para la comunidad local.

